

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Baso autoktonoa



HELBURUAK

- Zeure herriko basoak eta haien hedadura ezagutzea.
- Espezie autoktonoz osatutako basoen eta kanpoko espeziez osatutakoen arteko aldeak ezagutzea.
- Ongi zaindutako baso baten ezaugarrietan sakontzea.

LANDUTAKO GAITASUNAK

- Kultura zientifikoa, teknologikoa eta osasunari buruzkoa.
- Informazioaren tratamendua eta teknologia digitalaren erabilera.
- Hizkuntza-komunikazioa.

BALIABIDEAK

- Internet
- Euskal Herriko zuhaitz eta zuhaixken gida. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza. 2010

1 Erabil itzazu ondoko webguneko informazioa eta landare-gida bat, zeure udalerriko datuez beheko taula betetzeko:

http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-15135/eu/contenidos/estadistica/inven_fores_bd_tablas/eu_dapa/inven_fores_bd_tablas.html

Ekintza

Kontuz!

Baso hostotsu guztiak ez dira autoktonoak, konifero guztiak ez dira kanpokoak.

UDALERRIA

ESPEZIE AUTOKTONODUN BASOAK

Izen zientifikoa	Gaztelaniazko izena	Hedadura (Ha)

TOTALA

KANPOKO ESPEZIEDUN BASOAK

Izen zientifikoa	Gaztelaniazko izena	Hedadura (Ha)

TOTALA

2 Zein espezie dira nagusi zure udalerriko basoetan?

3 Udalerri osoaren hedaduratik, zer ehuneko betetzen du baso mota bakoitzak? Baso horietatik guztietatik, zer ehuneko betetzen dute espezie autoktonoek?

4 Udalerriko mapa bat edo airetiko irudi bat (ortofoto digitala) ikusita, bereiziko zenituzke baso mota nagusiak?

5 Behar-beharrezkoa da inguruan ditugun baso motak ezagutzea eta haien hedadura zenbatzea, zeren ezagutzen ez duguna ez baitugu maitatzen, eta maitatzen ez duguna ez baitugu babesten. Zoritxarrez, gure basoen zaintze-egoera ez da izan ohi egokiena. Jarraian, kontzeptu batzuen esanahia aztertuko dugu, baso bat ongi babestuta dagoen edo ez jakiteko. Irakur itzazu ondoko esteketan dauden artikulua:

http://www.elhuyar.org/zientziaren-komunikazioa/informazioa/sariketak/CAF-Elhuyar/11_02_A208_000-31.pdf

http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=10543

6 Orain, eskuratutako informazioaz eta ondorioez, presta ezazu ikaskideentzako aurkezpen bat.



Aurkezpena egiteko ohar batzuk:

- Honako kontzeptu hauek aipatu behar dira: baso autoktono, kanpoko espezie, biodibertsitate, osaera motak, egur hila, basoen kudeaketa jasangarria, ingurumen zerbitzuak.
- Erabil ezazu baso mota guztien izena.
- Konpara itzazu hurbileko basoen adibideak.

